

2007KO URTARRILAREN 17KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko urtarrilaren hamazazpian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko azaroaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 10 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA LAUROGEITA BI MILA LAUEHUN ETA BERROGEITA BERDERATZI euro eta BERROGEITA ZAZPI (182.449,47 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Ziburuko "Pierres Larzabal" ikastetxe berria egiteko kostuei aurre egiteko Kultura/Euskara Batzordetik 370 €ko dirulaguntza ematea proposatzen da. Dirulaguntza hau emateko modua, Ordizian, 2006ko abenduaren 30ean ikastola honen alde egingo den Pirritx eta Porrotx pailasoen ekitaldiko gastuei aurre egitea izango da. Dirulaguntza eskaria Lazkaoko San Benito Ikastolak egin du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, dirulaguntza hau ematea erabakitzen du.

- San Benito Ikastolari, eraikin berriaren eraikuntzarako dirulaguntza emateko 60.000 €tako partida aurrikusita dago 2007ko udal aurrekontuan.

Eraikuntza lanak burututa daudela kontutan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntza hau ematea erabakitzen du.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK.-

- Antzar Korrikalariak elkarteak, abenduaren 10an Lazkaon egin zen Eskolarteko Kros txapelketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusi ondoren, Kirol Batzordeak 670 €-tako dirulaguntza emateko proposamena luzatu dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, dirulaguntza hau ematea erabakitzen du.

- KEMEN K.O.Z.ek abenduaren 28an Lazkaon antolatu duen hitzaldi-alkarizketa aurrera eramateko egindako dirulaguntza eskaera ikusi ondoren, Kirol Batzordeak 500 €-tako dirulaguntza emateko proposamena luzatu dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, dirulaguntza hau ematea erabakitzen du.

- Lazkao Kirol Elkarteko futbol sailak Harizti Haundi futbol zelaiko mantenu lanak egiten ditu. Hori dela eta, lan horiek aurrera eramateagatik udalari dirulaguntza eskatu dio. Dirulaguntza eskaera ikusi ondoren, Kirol Batzordeak, 3.000 €ko dirulaguntza emateko proposamena luzatu dio Tokiko Gobernu Batzarrari, 2007ko futbol zelaia mantentzen lanen kontzeptuan eta lehen ordainketa moduan, udalak futbol zelaian egin behar diren aldaketa eta berrikuntzak suposatuko duten aldaketa aztertu eta behin-betiko erabakia hartzen den bitartean.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, dirulaguntza hau ematea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.